

Mesedez, gogoratu zuen izen-abizenak bidali behar didazuen orrian idaztea. Bidalketaren formatua pdf-a izango da.

1. Co^{2+} determina daiteke modu honetan; Co^{2+} duen disoluzio ezezagunari, soberan dagoen SCN^- kantitate ezaguna gehitzen da, piridinaren presentzian, $\text{Co}(\text{C}_2\text{H}_5\text{N})_4(\text{SCN})_2$ (s) konposatua osatu dadin, eta sortutako hauspeakina iragazi ondoren, SCN^- soberakinarekin baloratzen da. Kalkula ezazu Co^{2+} -aren kontzentrazio disoluzioan, 25,00 mL tratatzen badira 3,0 mL piridinarekin eta 25,00 mL KSCN 0,1132 M-arekin, ondoren iragazi eta disoluzioa 250,0 mL-tara eramaten da. Hortik 50,00 mL tako alikuota hartu eta 5,00 mL AgNO_3 0,1210 M gehitzen dira, zilar soberakinari Fe^{3+} tanta gehitzen zaizkio, eta 4,00 mL KSCN 0,1132 M behar ditu kolore gorriaren agerpena arte.
 2. 6,956 g-ko NaOH komertzialeko lagin bat, Na_2CO_3 rekin eta materia geldoarekin kutsatuta dagoena 250,0 mL-tan disolbatzen da. Disoluzio horren 25,00 mL-ko alikuota 30,00 mL-ko HNO_3 0,500 M-rekin tratatzen da, eta disoluzioa irakin egiten da CO_2 -a ezabatzeko. Ondoren, 7,90 mL-ko KOH 0,100 M-ko kontzentrazioa behar da azido soberakina neutralizatzeko. 10,00 mL-ko beste alikuota bati PbSO_4 soberakina gehitzen zaio, PbCO_3 guztiz hauspeatzeko. Lortutako disoluzioak baloratzean 11,00 mL H_2SO_4 0,250 M kontsumitzen ditu.
 - a. Kalkulatu jatorrizko laginaren konposizioa ehunekotan
- Datuak: NaOH 39,997 g/mol; PbSO_4 303,26 g/mol; Na_2CO_3 105,99 g/mol
3. Produktu zuritzailea (lixiba) NaClO den lagin batetik 2,500 g pisatzen duen azpilagana hartzen da eta 500,0 mL-tara urarekin eramaten da. Hortik 25,00 mL-ko alikuota hartu, azidotu eta KI soberakinarekin tratatzen da. Askatutako I_2 -a $\text{Na}_2\text{S}_2\text{O}_3$ disoluzio batekin baloratzen da, eta disoluzio horretatik 26,10 mL behar dira 25,00 mL KMnO_4 0,0210 M baloratzeko.
 - a. Kalkula ezazu NaClO ren ehuneko bezela, 13,40 mL $\text{Na}_2\text{S}_2\text{O}_3$ gastatzen badira iodoaren balorazioan.
 - b. Ebakuntza-gelak desinfektatzeko %0,2-koa (m/v) erabili behar badute, prestatutako disoluzioa erabilgarria al da?
- Datua: NaClO 74,4 g/mol